

Gezala AUDITORIUMA

MARTXOA - Marzo

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 1	22:00	LOS ESPIGADORES Y LA ESPIGADORA
LARUNBATA 3	16:30	MAROONS
OSTEGUNA 8	22:00	EL CALENTITO
LARUNBATA 10	16:30	HEIDI (3. ZATIA)
OSTEGUNA 15	22:00	CAROLINA
LARUNBATA 17	16:30	TRIKI, TRAKA, TRON (6)
OSTEGUNA 22	22:00	SÉVIGNÉ (Julia Berkovitz)
OSTEGUNA 29	22:00	EL PESO DEL AGUA

KULTUR HOTSAK

KONTZERTUAK

MARTXOAK 9	22:30	Lidia Pujol
MARTXOAK 16		Jone
MARTXOAK 30		Maddi Oihenart

ERAKUSKETA

MARTXOAK 5ETIK 18RA	11:00 - 13:00 17:00 - 20:00	Gaxuxa emakume taldea
---------------------	--------------------------------	-----------------------



KONTZERTUA

LIDIA PUJOL

2007ko martxoak 9, Ostirala • 22:30

10 €



Abeslaria eta antzezlea. Europan zehar hainbat bira egin ditu musika, antzerkia eta poesiaren eremuko ikuskizunetan parte hartuz. Artista ugariarekin (Els Trobadors, Allen Ginsberg, Pep Munné, Factoria Mascaró...) eta beste hainbat izen ospetsuren (Umberto Eco, Miriam Iscla, Philippe Lafaille, Sergi Belbel, ...) zuzendaritzapean aritua da esan bezala. Abeslari gisa, edizio diskografiko ugarietan esku hartu du: Miquel Gil eta Psàlité, Toni Xuclà, Sopa de cabra, Oscar Roig, Jackson Browne, Joan Figueres, Pat McDonald, Jabier Muguruza eta Brian Dunning. Lidia Pujolen musikak arnasestuka, arnasarik gabe, hitzek itota, egundoko indarrez heltzen die poemei.

ERAKUSKETA

GAXUXA

2007ko martxoak 5 - 18 • 11:00-13:00 / 17:00-20:00

KULTUR ARETOA (Donibane kalea 2)

Gaxuxa emakume taldearen eskulanean erakusketa Donibane kaleko kultura aretoan.

KONTZERTUA

MADDI OIHENART

2007ko martxoak 30, Ostirala • 22:30

10 €



Euskal Herriko ahotsik zoragarri, aberats eta zinezkoenartakoen artean dugu, ez bairik gabe. Maddik beste inork ez bezala adierazi eta aberasten du Zuberoko abesteko modua. Izan ere, Iparraldean artzain-musika bizirik mantentzen jakin dute, eta zahartu beharrean musika herrikoa, inoiz baino hobeto mantendua, errespetatua eta maitatua dago.

Maddi Oihenarten kantatzeko modua ez da genero eta estilo arauetara mugatzen: "a capella" ateratzen du bere arimatik mendietan bizi eta sentitzen duena. Konpasa, haizeak markatzen dio. Erritmoa, naturatik, sentimenduetatik, eta bere senetik hartzen du Maddik. Eta bere ahotsa, sakontasun eta sentiberatasun iturri garbia, lur magiko eta mitikoaren lilurara entregatzen da, aldi berean euskalduna eta unibertsala den lur horretara. Ezin liteke bestela izan. Maddi Oihenartek Zuberoko musika erakutsi diguten hainbat eta hainbat diskoetan hartu du parte. Baina bere kezka haratago doa. "Ilhargi Min" diskoan (Maddi Oihenart eta Josetxo Goia-Arbe, 2003), aurrerapauso bat eman zuen bere sustraia ahaztu gabe eta jazz hizkuntzan murgildu zen, urrutiegi geratzen ez zaion mundua. Emaizta oso sorpresa atsegina.

Diskoa, bide baten hasiera izan zen, eta orain proposamen ausartagoa egiten digu. Maddi Oihenart, inoiz baino askeago, instrumentu garaikidez inguratu da bere mundua ezagutu dezagun.

KONTZERTUA

JONE

2007ko martxoak 16, Ostirala • 22:30

10 €




Anoetako bakarlari gazteak "Martxaundi 4" Tolosaldeko talde eta abeslariak egindako bilduman izan zuen bere lehen kantua grabatzeko aukera. Aurretik emanak zituen bere lehen urratsak zenbait kontzertutan, nahiz eta Martxaundiko agerraldi harekin harritu eta liluratu bagintuen ere. Erakutsi dituen talentua eta ausardia, aurrekari hurbilik gabeko kantakeraren isla baino ez dira.

Lezoko zine agenda

MARTXOA MARZO

2007



Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Larunbata 16:30etan **1,00 €**

OSTEGUNA • jueves

LOS ESPIGADORES Y LA ESPIGADORA

Frantziako lurralde zabalean erabilitako gauzak, janariak edo dana-dalakoak jendeak nola aprobetxatzen dituen erakusten duen dokumental kurioso eta interesgarria.

2000, Frantzia 🕒 82 min. 🏠 Agnes Varda.
🎞 Dokumentala.

EL CALENTITO

"Las sioux" izeneko neskez osatutako punk taldea da protagonista. Disko bat grabatzeko aukera dute baina otsailak 23ko estatu kolpeak zaildu egingo ditu.

2005, Espainia. 🕒 90 min. 🏠 Gutiérrez, Chus. 🎞 Verónica Sánchez, Macarena Gómez, Juan Sanz, Ruth Díaz.

CAROLINA

Carolinak familia bitxi, berezi eta arriskutsua du, eta bere borroka haiengan-dik alde egin eta pertsonal 'normala' bilakatzea izango da.

2003, EEBB, Alemania. 🕒 96 min. 🏠 Gorris, Marleen.
🎞 Julia Stiles, Shirley MacLaine, Alessandro Nivola, Randy Quaid.

SÉVIGNÉ (Julia Berkovitz)

Antzerkiaren mundu bai artistiko, bai kudeaketa mailakoaren inguruko haus-narketa interesgarria eskaintzen duen pelikula. la protagonismoa osoa ema-kumeen gain geratzen da.

2004, Espainia. 🕒 82 min. 🏠 Balletbó-Coll, Marta. 🎞 Anna Azcona, Marta Balletbó-Coll, Leslie Charles, Carmen Elías, J.M.Pou.

EL PESO DEL AGUA

1873an gertatutako bi hilketak ikertzera doa irla batetara Jane izeneko argaz-kilaria. Itsasontzi batean, bere senarra eta beste bikote batekin hasieran harreman atseginean, gero ezin eraman mesfidatian.

2000, EEBB, Kanada, Frantzia. 🕒 65 min. 🏠 Bigelow, Kathryn.
🎞 Sean Penn, Elizabeth Hurley, Catherine McCormack, Sarah Polley.

LARUNBATA • sábado

MAROONS

Duela 80 milioi urte 7 haur estralurtar Eron planetatik Lur planetan galtzen dira. Horretarako Eron planetarik jarri beharko dute harremanetan, baina gaizkileen oztopoak gaituz.

2005, EH. 🕒 82 min. 🏠 EITB
🎞 Marrazki bizidunak.

HEIDI (3. zatia)

Heidi maitagarriaren hirugarren eta azken pelikula. Lezon aurreko biak ikusteko aukera izan ondoren, Heidi eta Klararen harremana zertan gera-tuko den ikusi ahal izango duzu.

1976, Japonia, Alemania. 🕒 70 min. 🏠 Isao Takahata.
🎞 Marrazki bizidunak.

TRIKI, TRAKA, TRON (6)

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazo ezagunak, bere Triki, traka, tron emanaldi jada ospetsuetan, berriro ere bihurrikeriak nagusi direlarik.

2002, EH. 🕒 60 min. 🏠 EITB
🎞 Pailazoan emanaldia.